# Noaua!!

HAMABOSTEKARIA




## SANTIXABELETARAKO USURBILGO HAMABOSTEKARI BERRIA

## HERRI ALDIZKARIA BULTZATZEKO NOAUA KULTUR ELKARTEA SORTU DA

## Agur t'erdi

Orri honen bitartez azken hilabeteotan lantzen gabiltzan proiektua aurkeztu nahi dizugu, Usurbilgo **herri aldizkariarena.**

Herriko elkarteen arteko gogoetek, argi nabarmendu dute aldizkari baten falta. Herrian gauza asko egin arren, bertan sortu eta bildutako berriek ez dute tokirik komunikabideetan.

Hutsune hau betetzeko,orain arte, saioak egon badira ere (Gaur, Geurtz, Lokotza...), guztiak, zoritxarrez, porrot egin dute. Halaere, inguruko herrietan prentsa lokalak lortu duen arrakasta ikusita, Usurbilek ere, bere aldizkaria behar duela iruditzen zaigu. Horrexegatik, herriko egoera aztertu ondoren, Santixabeletatik aurrera **hamabostean behin** etxean jasoko duzun **20 orrialdeko Noaua!** aldizkaria sortu dugu.

## HERRIKO INFORMAZIO ZUZENA

**Noaua!** aldizkariaren helburu nagusia jendeari **herriko** informazioa eman eta parte hartzeko aukera eskaintzea da. Hau da, Udalak, Elkarteek edota herritarrek dituzten asmo eta proiektuen berri eman eta era berean gertatutakoak eta iritziak azaltzea.

## EUZKERAZ

**Noaua!** euskara hutsean argitaratuko da, euskara errezean. Horrek beste helburu haundi bat lortzen lagunduko digu: euskararen normalizazioa.

**Noaua!** denontzat izango da garrantzitsua: Usurbilgo umeentzat, eskolatik kanpo ere euskeraz irakurtzen jarrai dezaten; euskaldun zaharrentzat, euskaraz irakur-tzeko ohitura hartzeko; eta euskaraz ez dakienentzat animadaitezen.

## PROFESIONALTASUNEZ

**Noaua!** aldizkari berria profesionala izango da, horretara dedikatuko den lantalde bat edukiko du eta Usurbilgo kazetari profesionalen lagun-tza izago du. Baldintza horiekin, aldizkari berriaren kalitatea eta iraupena ziurtatzea da gure asmoa.

## HERRIKOIA

Horrelako proiektu haundi batek herri guztiaren onespena eta bultzada behar ditu, ezin daiteke gutxi batzuen kapritxoa izan. Horretarako, Udala eta herriko elkarteen laguntza badaukagu; eta orain, herritarrena behar dugu.

**Noaua!** aldizkariak herrikoia izan behar du, beraz, dohainekoa. Herriko bazter guztietara heldu behar du, eta hori ez da laguntza gabe lortzen. Aldizkaria gauzatzeko eta usurbildar guztiok proiektuan parte hartzeko aukera eduki dezagun, **Noaua!** urtean 5.000 pezetako kuota ordainduko duten bazkidez osatutako elkartea izango da.

Ez da izango hau ordea, proiektuan parte hartzeko era bakarra. **Noaua!** aldizkariak ateak zabalik ditu lagundu nahi duen guztiarentzat : artikuluak idatziz, aldizkariaren banaketan lagunduz, aldizkarian publizitatea sartuz, argazkiak atereaz...

Bide batez, **dei berezia egin nahi diegu herriko enpresa eta dendei aldizkarian publizitatea sartzera anima daitezen.** Ekonomikoki laguntzeaz gain,beraien eskeintza herriratzeko aldizkaria tresna egoki eta merkea izango baita.

Proiektu hau benetako herri proiektua izan dadin, **bazkide egitera animatzen zaituztegu.** Elkarteko bazkide izan eta aldizkaria etxean jasotzeko, txartela bete.

# USURBILGO HERRI ALDIZKARIA

# NOAUA!

## Egin zaitez bazkide-harpidedun, hamabostean behin etxean, 5.000 pezeta urteko

### TALDE ERAGILEA

-Andoni Sagarna
-Arantzazu Aranburu
-Olatz Altuna
-Aitor Pikabea
-Garikoitz Udabe
-Josu Aranberri
-Jakoba Errekondo
-Unai Lataillade
-Pili Lizaso
-Juanjo Gómez
-Maite Zubeldia
-Iker Muguruza
-Idioia Torregarai
-Iñaki Mujika
-Iñigo Azpiroz
-J.Javier Furundarena
-Susana Martín
-Mertxe Olaizola
-Maialen Sagarna
-Fernando Garcia
-Josu Udabe
-Saioa Erro
-Ibon Beristain
-Inaxio Usarralde
-Ixabel Agirresarobe

---

Queremos presentaros un proyecto que se lleva gestando varios meses. Estamos viviendo una época de auge de los medios de comunicación y entre ellos, la prensa local está de moda. Por eso Usurbil no puede quedarse atrás y hemos diseñado una nueva revista, **Noaua!,** quincenal y de 20 páginas.

### INFORMACIÓN LOCAL

El objetivo principal de la revista **Noaua!** es ofrecer información local, qué se hace o sucede en Usurbil y dar a conocer las inquietudes y opiniones de los usurbildarras.

### EUSKARA

**Noaua!** se publicará íntegramente en euskara, lo que nos ayudará a cumplir con otro gran objetivo: la normalización de nuestro idioma.

### PROFESIONALIDAD

Este proyecto va a contar con profesionales del periodismo para garantizar una calidad necesaria.

### POPULAR

Contamos con el apoyo del Ayuntamiento y los grupos y sociedades, y ahora necesitamos el apoyo de cada uno de vosotros. **Noaua!** va a ser gratuito y debe llegar a todos los rincones del pueblo puntuelmente y esto no se realiza sin colaboración.

**Noaua!** va a ser una sociedad regida y controlada por socios que aportarán una cuota anual de 5.000 pesetas.

Aprovechamos para animar a los comercios y empresas del pueblo para que inserten su publicidad en la revista.Pues además de apoyar economicamente el proyecto, sin duda, encontrarán en la revista un medio adecuado y barato para dar a conocer sus servicios.

Finalmente, queremos animaros a que os hagáis socios de **Noaua!** para que este proyecto sea verdaderamente popular. Si queréis ser socios y recibir la revista basta con que rellenéis la hoja que hemos preparado.